Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko abuztuaren 31, asteazkena — 166 — Miércoles, a 31 de agosto de 2022

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*2/2022 Foru Dekretu-Araua, abuztuaren 30ekoa, prezioen gorakadaren ondorioak arintzeko presako zerga neurri berriak onesten dituena.*

COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko 2020ko martxoaren 14an alarma egoera deklaratu zenetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak zerga arloko hainbat neurri ezohiko eta presako hartu ditu, osasun krisi horren eragin negatiboa arintzeko. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak zerga alorrean aitortzen dizkion eskumenak baliatu ditu.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan aitorpena egiteko betebeharrari dagokionez, zehazki, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzko abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Arauaren bidez, doikuntza jakin batzuk egin ziren, 2020ko eta 2021eko zergaldietarako, pandemiaren ondorioz lan egoeran haren eragina izan duten zergadunen tributazioa ez zigortzeko asmoz. Hori horrela, 12.000 eurotik 14.000 eurora handitu zen lan etekin gordinak lortzeko jarritako muga, zeinaren azpitik ez baitago zertan aitortu. Gainera, ordaintzaile batek baino gehiagok emandako 14.000tik 20.000 eurora bitarteko lan etekin gordinak jasotzeagatik zergadunek aitorpena egin behar dutenerako, erabaki zen obligazio hori betetzetik salbuestea, baldin eta bigarren eta gainerako ordaintzaileengandik jasotako zenbatekoen batura, zenbatekoaren arabera, guztira urtean 2.000 eurotik gorakoa ez bada.

Aldaketa horien ondorioz, 2021. urterako atxikipenen taula berri bat onartu zen, aipatutako muga berrietara egokitutako lan pertsonalaren etekinei aplikatzeko.

2021. urtean pandemiak bere horretan jarraitu duenez eta pandemiaren ondorioak ikusita, batetik, 2022. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen martxoaren 10eko 1/2022 Foru Arauaren bidez, 11/2020 Foru Dekretu-Arauaren 5. artikuluan aitortzeko betebeharraren zehaztapenerako jarritako arau berberak ezarri ziren. Bestetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 22ko 6/2021 Foru Arauaren bidez, 100eko 1,5 jaitsi zen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan likidazio oinarri orokorrari aplikatu beharreko tarifa, eta, aldi berean, portzentaje berean handitu ziren baterako tributazioagatiko murriztapena, kuotaren gutxipena eta kenkari pertsonalak. Aurrekoarekin bat etorriz, 2022rako lan pertsonalaren atxikipenen taula berria onartu zen.

Erregaien eta elektrizitatearen handizkako merkatuaren prezioen gorakadak, Ukrainako gerrak areagotuta, inflazioaren inoiz ez bezalako igoerak ekarri ditu, eta horrek lehiakortasun

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Decreto Foral-Norma 2/2022, de 30 de agosto, por el que se aprueban nuevas medidas tributarias urgentes para paliar los efectos derivados del alza de precios.*

Desde la declaración del estado de alarma el 14 de marzo de 2020 para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por la COVID-19, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha ido adoptando una serie de medidas tributarias excepcionales y urgentes a fin de mitigar el impacto negativo de esta crisis sanitaria, en ejercicio de las competencias tributarias reconocidas en virtud del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En relación con la obligación de declarar en el impuesto sobre la renta de las personas físicas, concretamente mediante el Decreto Foral-Norma 11/2020, de 1 de diciembre, sobre medidas tributarias urgentes para paliar los efectos de la segunda ola del COVID-19, con la idea de no penalizar la tributación de las personas contribuyentes que habían visto afectada su situación laboral como consecuencia de la pandemia, para los periodos impositivos 2020 y 2021, se introdujeron determinados ajustes, de manera que se elevó el límite establecido para la obtención de rendimientos brutos de trabajo por debajo del cual no existe obligación de declarar, de 12.000 a 14.000 euros. Además, en los casos en que los y las contribuyentes tuvieran obligación de declarar por percibir rendimientos brutos de trabajo entre 14.000 y 20.000 euros procedentes de más de un pagador o pagadora, se estableció la exoneración del cumplimiento de dicha obligación para aquellos supuestos en los que la suma de las cantidades percibidas del segundo y restantes pagadores, por orden de cuantía, no superase en su conjunto la cantidad de 2.000 euros anuales.

Consecuencia de estos cambios se aprobó, para el año 2021, una nueva tabla de retenciones aplicable a los rendimientos de trabajo personal ajustada a los nuevos límites comentados.

En vista de la continuidad de la pandemia a lo largo del año 2021 y de los efectos derivados de la misma, por medio de la Norma Foral 1/2022, de 10 de marzo, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2022, se establecieron las mismas reglas para determinar la obligación de declarar previstas en el artículo 5 del Decreto Foral-Norma 11/2020 mencionado, y por medio de la Norma Foral 6/2021, de 22 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2022, se deflactó un 1,5 por 100 la tarifa aplicable a la base liquidable general en el impuesto sobre la renta de las personas físicas, incrementando a su vez en idéntico porcentaje la reducción por tributación conjunta, la minoración de cuota y las deducciones personales. En coherencia con lo anterior, se aprobó una nueva tabla de retenciones de trabajo personal para el ejercicio 2022.

La escalada de los precios de los carburantes y del mercado mayorista de electricidad, agravada por la guerra de Ucrania, está provocando una espiral inflacionista sin precedentes, que

EK\CV GAO-I-2022-05550

arazoa sortu die Gipuzkoako enpresei. Izan ere, kostu handiagoei aurre egin behar izaten diete, eta horrek arriskuan jartzen du gure inguruko ondasun eta zerbitzuen erakargarritasuna nazioarteko merkatuetan eta, oro har, herritarrentzat, horrek izugarri murrizten baitu ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko duten ahalmena.

Hala, testuinguru horretan, eta Gipuzkoako Foru Aldundia azken aldian gertatutako egoera bereziki larriei aurre egiten ari den azkartasun berarekin, apirilaren 5eko 1/2022 Foru Dekretu-Araua onartu da, egungo krisi energetikoa, prezioen gorakada eta Ukrainaren inbasioa izaten ari diren inpaktu ekonomikoa arintzeko premiazko zerga neurriak onesten dituena, egungo inflazio egoeraren eraginpeko jarduera ekonomikoetan gertatzen ari den eragin ekonomiko negatiboari erantzuteko, bai eta ekonomiaren operadore ahulenetan, hala nola mikroenpresetan eta enpresa txikietan eta pertsona autonomoetan, inpaktu ekonomiko negatibo handiagoa prebenitzeko ere. Horrez gain, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren ezohiko eta aldi baterako hobaria Gipuzkoako Foru Ogasunari eskatzeko prozedurak artikulatu ditu. Horretarako, bi agindu hauek eman ditu: apirilaren 1eko 216/2022 Foru Agindua, produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobariaren aurrerakina eskatzeko prozedura arautzen duena, eta maiatzaren 3ko 244/2022 Foru Agindua, produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobariaren aurrerakina eskatzeko prozedura arautzen duena (uztailaren 6ko 357/2022 Foru Aginduaren bidez aldatua).

Kontuan hartuta azpiko inflazioaren urteko tasa 100eko 5,5ekoa izan dela 2022ko ekainean, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian eurotan finkatuta dauden zenbatekoen inflazioaren eragina ezabatze aldera, berriro 100eko 4 deflaktatzen da 2022ko ekitaldiari dagokion likidazio oinarri orokorrari aplikatu beharreko tarifa eta, orobat, horretarako, portzentaje berean handitzen dira baterako tributaziorako murriztapena, kuotaren gutxipena eta kenkari pertsonalak. Gainera, 2022ko irailaren 1etik aurrera lan pertsonalaren etekinei aplikatu beharreko atxikipenen taula egokitzen da. Haien guztien egokitzapenaren helburua da behar diren doikuntzak egitea eta prezioen bilakaerara moldatzea, betiere zergadunentzako zerga kargak haien ahalmen ekonomikoarekin harreman egokia duela bermatzeko, zeren eta harreman hori aldatu baita egungoa bezalako inflazio egoeran.

Era berean, 2022ko zergaldirako bakarrik, kuotaren murrizketa gehigarri bat ezartzen da prezioen igoeraren ondorioak arintzeko. Horren arabera, 200 euroko kuota murrizketa bat aplikatuko da 30.000 eurotik beherako zerga oinarri orokorra duen autolikidazio bakoitzeko, eta zenbateko hori linealki murriztuz joango da zerga oinarri orokorra handitu ahala, harik eta 35.000 eurokoa edo hortik gorakoa denean desagertu arte.

Gainera, gizarte laguntza jakin batzuen salbuespena ezartzen da zergan. Alde batetik, salbuetsita egongo da diru sarrera eta ondare gutxi duten pertsona fisikoei emandako 200 euroko zuzeneko laguntza, betiere ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuaren esparruan, zeinaren bidez neurriak hartzen eta luzatzen baitira Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egin, kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei erantzun eta La Palmako uhartearen suspertze ekonomiko eta soziala ahalbidetzeko. Bestetik, arautu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak emandako laguntza (240 euro, 12 hilekotan banatzekoa) salbuestea. Laguntza horren helburua da sare sarbidearen eta erabilpen gaitasunaren arrakala digitala murriztea, bereziki kolektibo zaurgarrienen artean gertatzen den gizarte bazterkeriarik egon ez dadin. Laguntza horiek Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko uztailaren 14ko Aginduaren bidez eman dira, zeinaren bidez kolektibo kalteberentzako bonu digitalak jaulki-

genera un problema de competitividad para las empresas de Gipuzkoa, al tener que afrontar unos costes superiores que amenazan con reducir el atractivo de los bienes y servicios de nuestro entorno en los mercados internacionales, y para la ciudadanía en general, que ve mermada enormemente su capacidad adquisitiva de bienes y servicios.

Así, en este contexto y con la misma celeridad con que la Diputación Foral de Gipuzkoa viene actuando ante las situaciones de especial gravedad acontecidas en los últimos tiempos, se ha aprobado el Decreto Foral-Norma 1/2022, de 5 de abril, por el que se aprueban medidas tributarias urgentes para paliar el impacto económico derivado de la actual crisis energética, del alza de los precios y de la invasión de Ucrania, para responder al impacto económico negativo que se está produciendo sobre las actividades económicas afectadas por la actual coyuntura inflacionista, así como para prevenir un mayor impacto económico negativo en los operadores más vulnerables de la economía, como pueden ser las micro y pequeñas empresas y personas autónomas. Adicionalmente, el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas ha articulado los procedimientos para solicitar la bonificación extraordinaria y temporal del precio final de determinados productos energéticos a la Hacienda Foral de Gipuzkoa, mediante la Orden Foral 216/2022, de 1 de abril, por la que se regula el procedimiento para solicitar el anticipo de la bonificación extraordinaria y temporal del precio final de determinados productos energéticos y la Orden Foral 244/2022, de 3 de mayo, por la que se regula el procedimiento para solicitar la bonificación extraordinaria y temporal del precio final de determinados productos energéticos, modificada a su vez por la Orden Foral 357/2022, de 6 de julio.

Teniendo en cuenta que la tasa anual de la inflación subyacente es del 5,5 por 100 a junio de 2022, y a fin de eliminar el efecto de la inflación de los importes que están fijados en euros en la normativa del impuesto sobre la renta de las personas físicas, se vuelve a deflactar un 4 por 100, la tarifa aplicable a la base liquidable general correspondiente al ejercicio 2022, incrementando a su vez en idéntico porcentaje la reducción por tributación conjunta, la minoración de cuota y las deducciones personales. Además, se procede a adecuar la tabla de retenciones aplicable a los rendimientos de trabajo personal a partir del 1 de septiembre de 2022. Todo ello con el propósito de realizar los ajustes necesarios y la adaptación a la evolución de los precios, que aseguren que la carga impositiva para las personas contribuyentes mantiene una adecuada relación con su capacidad económica, una relación que se ve alterada en momentos de inflación como el actual.

Asimismo, con efectos exclusivamente para el período impositivo 2022, se establece una minoración de cuota adicional para paliar los efectos derivados del alza de precios, según la cual se aplicará una minoración de cuota de 200 euros por cada autoliquidación cuya base imponible general no exceda de 30.000 euros, y esta cuantía se irá reduciendo linealmente a medida que la base imponible general aumente, hasta desaparecer cuando sea de 35.000 euros o superior.

Además, se establece la exención en el impuesto de determinadas ayudas sociales. Por un lado, estará exenta la ayuda directa de 200 euros concedida a personas físicas de bajo nivel de ingresos y patrimonio, en el marco del Real Decreto-ley 11/2022, de 25 de junio, por el que se adoptan y se prorrogan determinadas medidas para responder a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, para hacer frente a situaciones de vulnerabilidad social y económica, y para la recuperación económica y social de la isla de La Palma. Por otro lado, se regula la exención de la ayuda de 240 euros a repartir en 12 mensualidades, concedida por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi con la finalidad de reducir la brecha digital de acceso y capacidad de uso de redes para evitar exclusiones sociales que se producen, especialmente, entre los colectivos más vulnerables, otorgadas en virtud de la Orden de 14 de julio de 2022, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se aprueban las bases reguladoras y la

EK\CV GAO-I-2022-05550

tzeko programaren oinarri arautzaileak ezarri eta horren deialdia egiten baita, Europar Batasuna - NextGenerationEUk (UNICO gizarte bonua) finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Era berean, eta apirilaren 5eko 1/2022 Foru Dekretu-Arauak hartutako neurrien ildotik, jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak salbuetsita daude 2022ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoei dagokien ordainketa zatikatutik. Horren osagarri, 2022ko ekitaldiari dagokion ordainketa zatikatutik salbuesten dira ordainketa zatikatu hori zehazteko kontuan hartzen den eragiketa bolumena zergaldian 50 milioi eurotik gorakoa ez duten sozietateen gaineko zergaren zergadunak, zerga horren baterakuntza fiskaleko araubide berezian tributatzen duten entitateak izan ezik, une honetan likidezia handiagoa izan dezaten laguntzeko.

Proposatutako neurrien izaerarengatik eta botere publikoek egungo ezohiko egoera ahal den neurrian arintze aldera berehala jarduteko beharrarengatik, beharrezkoa da neurriak presako prozeduraren bidez eta foru dekretu-arau baten bidez onestea.

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 14. artikuluan xedatzen du ezen, aparteko eta presako arrazoiak daudenean, Diputatuen Kontseiluak behin-behineko arau xedapenak eman ahal izango dituela, eta xedapen horiek foru dekretu-arauen forma izango dutela. Horrelako xedapenek ezingo diete eragin foru organoen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari. Foru dekretu-arauak Batzar Nagusietan eztabaidatu eta bozkatu behar dira berehala, baliozkotuak izateko.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. Aldatzea urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena.*

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek sartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan:

*Bat.* Honela idatzita gelditzen da 73. artikulua:

«73. artikulua. Murrizpena batera tributatzeagatik.

1. Foru arau honen 97. artikuluan xedatutakoari jarraituz batera tributatzea aukeratzen den kasuetan, zerga oinarri orokorra 4.590 euro murriztuko da urtean autolikidazio bakoitzeko.

2. Foru arau honen 97. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren familia unitateen kasuan, aurreko apartatuan adierazitako murriztapena 3.987 eurokoa izango da.»

*Bi.* Honela idatzita gelditzen da 75. artikuluko 1. apartatua:

«1. Oinarri likidagarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga tasak aplikatuko zaizkio:

convocatoria del programa de emisión de bonos digitales para colectivos vulnerables, en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia –financiado por la Unión Europea–NextGenerationEU (Programa ÚNICO Bono Social).

Asimismo, y en línea con las medidas adoptadas por el ya mencionado Decreto Foral-Norma 1/2022, de 5 de abril, se exonera a los y las contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas que realicen actividades económicas, del pago fraccionado correspondiente al tercer y cuarto trimestre de 2022. Complementariamente, se exonera del pago fraccionado correspondiente al ejercicio 2022 a los contribuyentes del impuesto sobre sociedades que tengan un volumen de operaciones en el período impositivo que se toma en consideración para la determinación del mencionado pago fraccionado, no superior a 50 millones de euros, excluidas las entidades que tributan en el régimen especial de consolidación fiscal de dicho impuesto, a fin de contribuir a su mayor liquidez en el momento actual.

La naturaleza de las medidas propuestas, unidas a la necesidad de una actuación inmediata por parte de los poderes públicos con la finalidad de paliar en la medida de lo posible la situación excepcional en la que nos encontramos, exigen aprobar las medidas a través del procedimiento de urgencia y mediante un decreto foral-norma.

El artículo 14 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, regula la posibilidad de dictar por el Consejo de Gobierno Foral, por razones de extraordinaria y urgente necesidad, disposiciones normativas provisionales que tomarán la forma de decreto foral-norma, y que no podrán afectar a la organización, régimen y funcionamiento de los órganos forales. Las disposiciones así adoptadas deberán ser inmediatamente sometidas a debate y votación en las Juntas Generales para su convalidación.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

*Artículo 1. Modificación de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

Con efectos a partir del 1 de enero de 2022, se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

*Uno.* El artículo 73 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 73. Reducción por tributación conjunta.

1. En los supuestos en que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 97 de esta Norma Foral se opte por la tributación conjunta, la base imponible general se reducirá en el importe de 4.590 euros anuales por autoliquidación.

2. La reducción señalada en el apartado anterior será de 3.987 euros en el caso de las unidades familiares señaladas en el apartado 2 del artículo 97 de esta Norma Foral.»

*Dos.* El apartado 1 del artículo 75 queda redactado en los siguientes términos:

«1. La base liquidable general será gravada a los tipos que se indican en la siguiente escala:

| *Oinarri likidagarri orokorra (goi muga) (€) / Base liquidable general hasta (€)* | *Kuota osoa (€) / Cuota íntegra (€)* | *Oinarri likidagarriaren gainerakoa (goi muga) (€) / Resto base liquidable hasta (€)* | *Tasa aplikagarria (%) / Tipo aplicable (%)* |
|---:|---:|---:|---:|
| 0,00 | 0,00 | 16.940,00 | 23,00 |
| 16.940,00 | 3.896,20 | 16.940,00 | 28,00 |

EK\CV GAO-I-2022-05550

| Oinarri likidagarri orokorra (goi muga) (€) / Base liquidable general hasta (€) | Kuota osoa (€) / Cuota íntegra (€) | Oinarri likidagarriaren gainerakoa (goi muga) (€) / Resto base liquidable hasta (€) | Tasa aplikagarria (%) / Tipo aplicable (%) |
|---|---|---|---|
| 33.880,00 | 8.639,40 | 16.940,00 | 35,00 |
| 50.820,00 | 14.568,40 | 21.750,00 | 40,00 |
| 72.570,00 | 23.268,40 | 27.940,00 | 45,00 |
| 100.510,00 | 35.841,40 | 33.470,00 | 46,00 |
| 133.980,00 | 51.237,60 | 61.340,00 | 47,00 |
| 195.320,00 | 80.067,40 | Hortik aurrera/en adelante | 49,00» |

*Hiru.* Honela idatzita gelditzen da 77. artikulua:

«77. artikulua. Kuota txikitzea.

Zergadunek 1.513 euro gutxitu ahal izango dute kuotatik autolikidazio bakoitzeko, foru arau honetako 74. artikuluan ezarritakoaren arabera.»

*Lau.* Honela idatzita gelditzen dira 79. artikuluko 1. eta 2. apartatuak:

«1. Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko, kenkari hau egingo da:

— 638 euro urtean, lehenengoagatik.

— 790 euro urtean, bigarrenagatik.

— 1.332 euro urtean, hirugarrenagatik.

— 1.574 euro urtean, laugarrenagatik.

— 2.056 euro urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzarengatik.

2. Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo ahaide bakoitzeko, aurreko apartatuan jasotakoaren arabera dagokion kenkariaz gain, 368 euroko kenkari osagarria egingo da urtean.»

*Bost.* Honela idatzita gelditzen da 81. artikuluaren 1. apartatuko lehen paragrafoa:

«1. Urte natural osoan zergadunarekin modu jarraitu eta iraunkorrean bizi den aurreko ahaide bakoitzeko 306 euroko kenkaria aplikatu ahal izango da.»

*Sei.* Honela idatzita gelditzen da 83. artikulua:

«83. artikulua. Kenkaria adinarengatik.

1. Zerga oinarria 20.000 eurokoa edo txikiagoa duen 65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko, 367 euroko kenkaria aplikatuko da.

Zergadunak 75 urte baino gehiago baditu, eta haren zerga oinarria 20.000 eurokoa edo txikiagoa bada, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 668 eurokoa izango da.

2. Zerga oinarria 20.000 eurotik gorakoa eta 30.000 eurotik beherakoa duten 65 urtetik gorako zergadunek 367 euroko kenkaria aplikatuko dute, zerga oinarria 20.000 euro gutxitzetik ateratzen den zenbatekoa bider 0,0367 eginda ateratzen den emaitza kenduta.

3. Zerga oinarria 20.000 eurotik gorakoa eta 30.000 eurotik beherakoa duten 75 urtetik gorako zergadunek 668 euroko kenkaria aplikatuko dute, zerga oinarria 20.000 euro gutxitzetik ateratzen den zenbatekoa bider 0,0668 eginda ateratzen den emaitza kenduta.

4. Artikulu honen ondorioetarako, zerga oinarritzat hartuko da foru arau honen 65. eta 66. artikuluetan aurreikusitako zerga oinarri orokorra eta aurrezpenarena batuta ateratzen den zenbatekoa. Zerga oinarri orokorrak saldo negatiboa ematen badu, zero konputatuko da aipatutako baturaren ondorioetarako.

*Tres.* El artículo 77 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 77. Minoración de cuota.

Los contribuyentes aplicarán una minoración de cuota de 1.513 euros por cada autoliquidación, conforme a lo previsto en el artículo 74 de esta Norma Foral.»

*Cuatro.* Los apartados 1 y 2 del artículo 79 quedan redactados en los siguientes términos:

«1. Por cada descendiente que conviva con el contribuyente se practicará la siguiente deducción:

— 638 euros anuales por el primero.

— 790 euros anuales por el segundo.

— 1.332 euros anuales por el tercero.

— 1.574 euros anuales por el cuarto.

— 2.056 euros anuales por el quinto y por cada uno de los sucesivos descendientes.

2. Por cada descendiente menor de seis años que conviva con el contribuyente, además de la deducción que corresponda conforme al apartado anterior, se practicará una deducción complementaria de 368 euros anuales.»

*Cinco.* El primer párrafo del apartado 1 del artículo 81 queda redactado en los siguientes términos:

«1. Por cada ascendiente que conviva de forma continua y permanente durante todo el año natural con el contribuyente se podrá aplicar una deducción de 306 euros.»

*Seis.* El artículo 83 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 83. Deducción por edad.

1. Por cada contribuyente de edad superior a 65 años cuya base imponible sea igual o inferior a 20.000 euros se aplicará una deducción de 367 euros.

En el caso de que el contribuyente tenga una edad superior a 75 años, y siempre que su base imponible sea igual o inferior a 20.000 euros, la deducción a que se refiere el párrafo anterior será de 668 euros.

2. Los contribuyentes mayores de 65 años con una base imponible superior a 20.000 euros e inferior a 30.000 euros aplicarán una deducción de 367 euros menos el resultado de multiplicar por 0,0367 la cuantía resultante de minorar la base imponible en 20.000 euros.

3. Los contribuyentes mayores de 75 años con una base imponible superior a 20.000 euros e inferior a 30.000 euros aplicarán una deducción de 668 euros menos el resultado de multiplicar por 0,0668 la cuantía resultante de minorar la base imponible en 20.000 euros.

4. A los efectos del presente artículo se considerará base imponible el importe resultante de sumar las bases imponibles general y del ahorro previstas en los artículos 65 y 66 de esta Norma Foral. Cuando la base imponible general arroje saldo negativo, se computará cero a efectos del sumatorio citado anteriormente.

EK\CV GAO-I-2022-05550

Dena den, zerga oinarri orokorrean eta, hala badagokio, aurrezpenarenaren zerga oinarrian pentsio konpentsagarrien eta urteko mantenurako ordainketen murriztapena aplikatzen bada foru arau honen 69. artikuluan ezarritakoaren arabera, murriztapen horrek aurreko paragrafoan xedatutakoari jarraituz kalkulatutako zerga oinarria gutxituko du.»

*2. artikulua. Aldatzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsia.*

2022ko irailaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldatu egiten da urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko hamalaugarren xedapen gehigarria. Honela idatzita gelditzen da:

«Hamalaugarren xedapen gehigarria. Lan etekinei 2022an aplikatuko zaizkien atxikipen portzentajeen taula.

100. artikuluko 1. apartatuan xedatutakoa gorabehera, 2022ko irailaren 1etik abenduaren 31 bitartean, lan etekinei aplikatuko zaizkien atxikipen portzentajeen taula orokorra honako hau izango da:

No obstante, en el supuesto en que se practique en la base imponible general y, en su caso, en la base imponible del ahorro, la reducción por pensiones compensatorias y anualidades por alimentos a que se refiere el artículo 69 de esta Norma Foral, ésta minorará la base imponible calculada de acuerdo con lo dispuesto en el párrafo anterior.»

*Artículo 2. Modificación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre.*

Con efectos a partir del 1 de septiembre de 2022, se modifica la disposición adicional decimocuarta del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre, que queda redactada en los siguientes términos:

«Disposición adicional decimocuarta. Tabla de porcentajes de retención sobre rendimientos del trabajo aplicable en 2022.

No obstante lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 100, con efectos desde el 1 de septiembre de 2022 y hasta el 31 de diciembre de 2022 la tabla general de porcentajes de retención aplicables a los rendimientos del trabajo será la siguiente:

| *Urteko etekina (€)<br>Importe rendimiento anual (€)* | | *Ondorengo ahaideen kopurua<br>Número de descendientes* | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Behe muga<br>Desde* | *Goi muga<br>Hasta* | *0* | *1* | *2* | *3* | *4* | *5* | *Gehiago<br>Más* |
| 0,00 | 14.000,00 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 14.000,01 | 15.070,00 | 5 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 15.070,01 | 15.830,00 | 6 | 4 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 15.830,01 | 16.880,00 | 7 | 5 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 16.880,01 | 18.150,00 | 8 | 6 | 4 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 18.150,01 | 19.540,00 | 9 | 7 | 5 | 2 | 0 | 0 | 0 |
| 19.540,01 | 21.050,00 | 10 | 8 | 7 | 3 | 0 | 0 | 0 |
| 21.050,01 | 22.760,00 | 11 | 10 | 8 | 5 | 1 | 0 | 0 |
| 22.760,01 | 24.070,00 | 12 | 11 | 9 | 6 | 3 | 0 | 0 |
| 24.070,01 | 26.080,00 | 13 | 12 | 10 | 8 | 4 | 0 | 0 |
| 26.080,01 | 28.330,00 | 14 | 13 | 11 | 9 | 6 | 2 | 0 |
| 28.330,01 | 30.990,00 | 15 | 14 | 13 | 10 | 8 | 4 | 0 |
| 30.990,01 | 34.210,00 | 16 | 15 | 14 | 12 | 9 | 6 | 0 |
| 34.210,01 | 38.650,00 | 17 | 16 | 15 | 13 | 11 | 8 | 0 |
| 38.650,01 | 42.060,00 | 18 | 17 | 16 | 15 | 13 | 10 | 3 |
| 42.060,01 | 45.340,00 | 19 | 18 | 17 | 16 | 14 | 12 | 5 |
| 45.340,01 | 49.170,00 | 20 | 19 | 18 | 17 | 15 | 13 | 7 |
| 49.170,01 | 52.920,00 | 21 | 20 | 20 | 18 | 17 | 15 | 9 |
| 52.920,01 | 57.270,00 | 22 | 21 | 21 | 19 | 18 | 16 | 11 |
| 57.270,01 | 60.980,00 | 23 | 22 | 22 | 21 | 19 | 18 | 12 |
| 60.980,01 | 65.050,00 | 24 | 23 | 23 | 22 | 21 | 19 | 14 |
| 65.050,01 | 69.670,00 | 25 | 25 | 24 | 23 | 22 | 20 | 16 |
| 69.670,01 | 74.950,00 | 26 | 26 | 25 | 24 | 23 | 22 | 17 |
| 74.950,01 | 80.720,00 | 27 | 27 | 26 | 25 | 24 | 23 | 19 |
| 80.720,01 | 85.740,00 | 28 | 28 | 27 | 26 | 25 | 24 | 20 |
| 85.740,01 | 91.450,00 | 29 | 29 | 28 | 27 | 27 | 25 | 22 |

EK\CV GAO-I-2022-05550

| *Urteko etekina (€)*<br>*Importe rendimiento anual (€)* | | *Ondorengo ahaideen kopurua*<br>*Número de descendientes* | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Behe muga*<br>*Desde* | *Goi muga*<br>*Hasta* | *0* | *1* | *2* | *3* | *4* | *5* | *Gehiago*<br>*Más* |
| 91.450,01 | 97.970,00 | 30 | 30 | 29 | 29 | 28 | 27 | 23 |
| 97.970,01 | 105.500,00 | 31 | 31 | 30 | 30 | 29 | 28 | 25 |
| 105.500,01 | 113.490,00 | 32 | 32 | 31 | 31 | 30 | 29 | 26 |
| 113.490,01 | 122.900,00 | 33 | 33 | 32 | 32 | 31 | 30 | 28 |
| 122.900,01 | 134.030,00 | 34 | 34 | 33 | 33 | 32 | 32 | 29 |
| 134.030,01 | 146.790,00 | 35 | 35 | 34 | 34 | 33 | 33 | 31 |
| 146.790,01 | 160.770,00 | 36 | 36 | 36 | 35 | 35 | 34 | 32 |
| 160.770,01 | 177.700,00 | 37 | 37 | 37 | 36 | 36 | 35 | 33 |
| 177.700,01 | 198.600,00 | 38 | 38 | 38 | 37 | 37 | 36 | 35 |
| 198.600,01 | 220.450,00 | 39 | 39 | 39 | 38 | 38 | 37 | 36 |
| 220.450,01 | Hortik aurrera/<br>En adelante | 40 | 40 | 40 | 39 | 39 | 39 | 37 |

2. 100. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoa gorabehera, 2022ko irailaren 1etik 2022ko abenduaren 31 bitartean, taula orokorra aplikatuta ateratzen den atxikipen portzentajea zenbatean murriztuko den jakiteko, honako eskala aplikatuko da:

2. No obstante lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 100, con efectos desde el 1 de septiembre de 2022 y hasta el 31 de diciembre de 2022 la escala que señala los puntos en que se minorará el porcentaje de retención que resulte de la aplicación de la tabla general será la siguiente:

| *Urteko etekina*<br>*Importe rendimiento anual* | | *Desgaitasun maila*<br>*Grado de discapacidad* | | |
|---|---|---|---|---|
| *Behe muga*<br>*Desde* | *Goi muga*<br>*Hasta* | *4.a) apartatuta*<br>*Apartado 4.a)* | *4.b) apartatua*<br>*Apartado 4.b)* | *c) apartatua*<br>*Apartado 4.c)* |
| 0,01 | 24.070,00 | 9 | 12 | |
| 24.070,01 | 30.990,00 | 7 | 12 | |
| 30.990,01 | 45.340,00 | 6 | 10 | |
| 45.340,01 | 52.920,00 | 5 | 10 | |
| 52.920,01 | 74.950,00 | 4 | 8 | |
| 74.950,01 | 113.490,00 | 3 | 6 | |
| 113.490,01 | 177.700,00 | 2 | 5 | |
| 177.700,01 | Hortik aurrera<br>En adelante | 1 | 3» | |

*3. artikulua. Kuotaren murrizketa gehigarria, prezioen igoeraren ondorioak arintzeko.*

1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ordaintzen duten zergadunen zerga oinarri orokorra 30.000 euro edo gutxiago bada, 200 euro murriztuko zaie kuota 2022ko zergaldian, autolikidazio bakoitzeko.

2. Zergadunen zerga oinarri orokorra 30.000 euro baino gehiago eta 35.000 euro baino gutxiago bada, zerga oinarri orokorra 30.000 euroan murrizteak ematen duen zenbatekoa bider 0,04 egingo da, eta ateratzen den emaitza 200 euroko kuotari kenduko zaio, autolikidazio bakoitzeko.

3. Kuotaren murrizketa horrek urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 74. artikuluko lehen marratxoan aipatzen den zenbatekoa gutxituko du, kuota osoa kalkulatzeko.

*Artículo 3. Minoración de cuota adicional para paliar los efectos derivados del alza de precios.*

1. Las y los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas cuya base imponible general sea igual o inferior a 30.000 euros aplicarán en la autoliquidación correspondiente al período impositivo 2022 una minoración de cuota de 200 euros por cada autoliquidación.

2. Las y los contribuyentes cuya base imponible general sea superior a 30.000 euros e inferior a 35.000 euros aplicarán una minoración de cuota de 200 euros menos el resultado de multiplicar por 0,04 la cuantía resultante de minorar la base imponible general en 30.000, por cada autoliquidación.

3. Esta minoración de cuota reducirá el importe a que se refiere el primer guion del artículo 74 de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, para el cálculo de la cuota íntegra.



EK\CV GAO-I-2022-05550

*4. artikulua. Pertsona fisikoei emandako laguntza publiko jakin batzuk salbuestea.*

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita egongo dira honako laguntza hauek:

a) 200 euroko laguntza, ordainketa bakarrekoa, ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege-Dekretuaren 31. artikuluaren babesean emana. Lege-Dekretu horren bidez neurriak hartzen eta luzatzen dira Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egin, kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei erantzun eta La Palmako uhartearen suspertze ekonomiko eta soziala ahalbidetzeko.

b) Honako agindu honen arabera emandako dirulaguntzak: Agindua, 2022ko uztailaren 14koa, Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez kolektibo kalteberentzako bonu digitalak jaulkitzeko programaren oinarri arautzaileak ezarri eta horren deialdia egiten baita, Europar Batasuna - NextGenerationEUk (UNICO gizarte bonua) finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

*5. artikulua. 2022ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako ordainketa zatikatutik salbuestea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.*

Jarduera ekonomikoa duten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek ez dute derrigorrez 2022ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako ordainketa zatikatua autolikidatu eta ordaindu beharko Gipuzkoako Foru Ogasunean.

Ordainketa zatikatu horren autolikidazioa beren borondatez aurkezten badute, ezingo dute eskatu dagokion zenbatekoaren ordainketa geroratu edo zatikatzeko, eta ez dute eskubiderik izango haren itzulketa bidegabeko diru-sarrera gisa eskatzeko.

*6. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aukerako autolikidazioa.*

Urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 101.3. artikuluaren bigarren paragrafoko bigarren gidoian aukerako autolikidazioa aurreikusten du. 2022ko zergaldiari dagokionez, aipatutako puntu horretako a) letran jasotzen diren atxikipen portzentajeei buruzko taulak 2022ko abenduaren 31n indarrean daudenak izango dira edozein kasutan.

*7. artikulua. 2022ko ordainketa zatikatutik salbuestea sozietateen gaineko zergan.*

1. 2022an entitate zergadunek ez dute derrigorrez egin beharko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 130 bis artikuluan jasotzen den ordainketa zatikatua honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Autolikidatzeko epea urriaren 1ean amaitzen den azken zergaldiko eragiketa bolumena 50 milioi euro baino gutxiagokoa izatea.

Sozietateen gaineko zergan autolikidazioa aurkeztera derrigortuta egon arren halakorik egin ez bada, aurkeztutako azken autolikidazioari edo, hala badagokio, egindako likidazioari lotutako zergaldian izandako eragiketa bolumena hartuko da kontuan.

Lehen aipatutakoaren arabera autolikidazio epea amaitua duen azken zergaldia urtebete baino laburragoa bada, eragiketa bolumena urtebetera zabalduko da, 12 hilabeteko aldia osatu arte.

b) Aipatutako foru arauaren VI. kapituluko VI. tituluan aurreikusten den zerga baterakuntzako araubide berezian ez tributatzea.

2. Aurreko apartatuan aipatutako entitate zergadunek ordainketa zatikatu horren autolikidazioa beren borondatez aurkezten badute, ezingo dute eskatu dagokion zenbatekoaren or-

*Artículo 4. Exención de determinadas ayudas públicas concedidas para personas físicas.*

Estarán exentas del impuesto sobre la renta de las personas físicas las ayudas que se relacionan a continuación:

a) La ayuda de 200 euros de cuantía en pago único concedida al amparo del artículo 31 del Real Decreto-ley 11/2022, de 25 de junio, por el que se adoptan y se prorrogan determinadas medidas para responder a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, para hacer frente a situaciones de vulnerabilidad social y económica, y para la recuperación económica y social de la isla de La Palma.

b) Las ayudas concedidas en virtud de la Orden de 14 de julio de 2022, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria del programa de emisión de bonos digitales para colectivos vulnerables, en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia –financiado por la Unión Europea–NextGenerationEU (Programa ÚNICO Bono Social).

*Artículo 5. Exoneración del pago fraccionado del tercer y cuarto trimestre de 2022 en el impuesto sobre la renta de las personas físicas.*

Las y los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas que ejerzan actividades económicas no estarán obligados a autoliquidar e ingresar en la Hacienda Foral de Gipuzkoa el pago fraccionado correspondiente al tercer y cuarto trimestre de 2022.

En caso de que voluntariamente presenten la autoliquidación de dicho pago fraccionado, no podrán solicitar el aplazamiento o fraccionamiento del pago del importe correspondiente, ni tendrán derecho a solicitar la devolución posterior del mismo en concepto de devolución de ingresos indebidos.

*Artículo 6. Autoliquidación opcional del impuesto sobre la renta de las personas físicas.*

Para el cálculo de la autoliquidación opcional prevista en el segundo guion del segundo párrafo del artículo 101.3 de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, correspondiente al período impositivo 2022, las tablas de porcentajes de retención a que se refiere la letra a) del citado guion serán, en todo caso, las vigentes a 31 de diciembre de 2022.

*Artículo 7. Exoneración del pago fraccionado del 2022 en el impuesto sobre sociedades.*

1. En 2022 no resultarán obligadas a realizar el pago fraccionado a que se refiere el artículo 130 bis de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, las entidades contribuyentes que cumplan los siguientes requisitos:

a) Que el volumen de operaciones correspondiente al último periodo impositivo cuyo plazo de autoliquidación estuviese vencido a 1 de octubre sea inferior a 50 millones de euros.

En el supuesto de que no se hubiera presentado la autoliquidación del impuesto sobre sociedades, estando obligado a ello, se tendrá en cuenta el volumen de operaciones correspondiente al periodo impositivo al que se refiera la última autoliquidación presentada o, en su caso, liquidación practicada.

Cuando el último período impositivo cuyo plazo de autoliquidación estuviera vencido de acuerdo con lo señalado anteriormente sea de duración inferior al año el volumen de operaciones se elevará al año hasta completar un período de 12 meses.

b) Que no tributen en el régimen especial de consolidación fiscal previsto en el capítulo VI del título VI de la citada norma foral.

2. En caso de que las entidades contribuyentes a que se refiere el apartado anterior voluntariamente presenten la autoliquidación de dicho pago fraccionado, no podrán solicitar el

dainketa geroratu edo zatikatzeko, eta ez dute eskubiderik izango haren itzulketa bidegabeko diru-sarrera gisa eskatzeko.

*Azken xedapenetako lehena. Erregelamenduzko xedapenen maila zaintzea.*

Foru dekretu-arau honen 2. artikuluaren bidez aldatutako erregelamenduan sartu diren zehaztapenak foru dekretu mailako arauen bidez aldatu ahal izango dira.

*Azken xedapenetako bigarrena. Araugintzako ahalmena ematea.*

1. Baimena ematen zaie Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari foru dekretu-arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.

2. Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari foru dekretu-arau honetako 3., 5. eta 7. artikulutan jasotako zerga neurrien indar epea foru agindu bidez luzatzeko, betiere hura onartzea eragin zuten ezohiko zirkunstantziak irauteak hala justifikatzen badu.

*Azken xedapenetako hirugarrena. Indarrean jartzea eta ondorioak izatea.*

Foru dekretu-arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, bere xedapenetan espresuki jasotako ondorioak eragotzi gabe.

Donostia, 2022ko abuztuaren 30a.

Diputatu Nagusia,
Markel Olano Arrese.

Ogasun eta Finantza
Departamentuko
Foru Diputatua,
Jokin Perona Lerchundi. (5550)

aplazamiento o fraccionamiento del pago del importe correspondiente, ni tendrán derecho a solicitar la devolución posterior del mismo en concepto de devolución de ingresos indebidos.

*Disposición final primera. Salvaguardia de rango de disposiciones reglamentarias.*

Las determinaciones incluidas en la norma reglamentaria que es objeto de modificación por el artículo 2 de este decreto foral norma podrán ser modificadas por normas con rango de decreto foral.

*Disposición final segunda. Habilitaciones normativas.*

1. Se autoriza a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias en desarrollo y aplicación del presente decreto foral-norma.

2. Se autoriza al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para la prórroga, mediante orden foral, del plazo de vigencia de las medidas tributarias contenidas en los artículos 3, 5 y 7 del presente decreto foral-norma, siempre que lo justifique el mantenimiento de las circunstancias excepcionales que motivaron su aprobación.

*Disposición final tercera. Entrada en vigor y efectos.*

El presente decreto foral-norma entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sin perjuicio de los efectos expresos previstos en sus preceptos.

San Sebastián, a 30 de agosto de 2022.

El Diputado General,
Markel Olano Arrese.

El Diputado Foral
del Departamento de
Hacienda y Finanzas,
Jokin Perona Lerchundi. (5550)

EK\CV GAO-I-2022-05550